

Itsaso Perez Ormazabal

E maila • 1 aipamena

Kaixo!

Ni Itsaso Pérez Ormazabal nauzue, 11 urteko neska beasaindarra. Murumendi Ikastetxean ikasten dut, 5. mailan hain zuzen ere.

Nire zaletasunen artean irakurtzea, antzeztea eta lagunekin denbora pasatzea daude.

Nik idatzitako ipuina gustukoa izatea espero dut, ilusio handiarekin idatzitakoa baita.

Aipamen hau nire familiari, aiton-amonei, irakasleei eta ondoan ditudan lagunei esakintzen diet.

Gozatu!



SIRIATIK HONA

Gaur da eguna, gaur da egun handia, Siriako migratzaileen aterpetxetik benetako etxe batera joango naizena, familia berri batekin. Hemen nire familia lagunak dira. Hala ere aterpetxean ez naiz nire gurasoekin bizi, Siriako gerran hil zirelako, bonbardeaketa batek harrapatuta. Ni bizirik atera nintzen, baina bakarrik geratu nintzen.

Esnatutakoan maletak hartu, hango lagunak agurtu eta bertako zaintzaile batekin abiatu naiz aireporturantz. Aireporturanzko bidaia autoz egin dugu eta konturatzerako hemen gaude. Aireportuan jende asko dago, denak alde batera eta bestera mugitzen, eta ni urduri jarri naiz, orduan zaintzaileak eskutik heldu dit eta segituan lasaitu naiz. Gero langile batzuei maletak eman dizkiegu hegazkinean sartzeko eta gu bidaiari jateko zerbait erostera joan gara. Erosi eta segituan sartu gara hegazkinera.

Denbora segituan pasa da, zeren nahiz eta urduri egon gogo handia dut familia berria ezagutzeko.

Hondarribiko Aireportuan lurreratu gara eta taxi bat hartu dugu Getarira iristeko, hemendik aurrera han biziko naiz eta.

Getarira iristean hango itsasoaren inguruan aparkatu dugu, egia esan ia leku guztiak okupatuta zeudelako eta asko kostatu zaigu aparkatzea. Gero itsasora jaitsi gara eta familia bat zegoen han: gurasoak itsasertzean eta bi haur, bata neska eta bestea mutila hankak uretan sartuta jolasean ari dira; niri oso jatorrak iruditu zaizkit. Gero zaintzaileak esan dit beraiek izango direla nire familia berria eta hori esan bezain laster familia guregana gerturatu da eta zaintzaileak keinu batez nik ere hala egiteko adierazi dit. Nik hala egin dut baina ez dut ezer esan ez dakidalako ea nire hizkuntza dakiten, nik arabea eta gaztelania apur bat dakit, eskolan irakatsi zigutelako. Zaintzaileak ez dudala hitz egin behar konturatu denean bera hasi da hizketan, ez dakit oso ondo zein hizkuntzetan hitz egiten ari diren, baina uste dut euskara dela,

Euskal Herriko hizkuntza. Hitz egiten bukatu dutenean beste egun bat geratuko dela esan dit, pixka bat ezagutu arte.

Gaur oso ondo pasa dut, gure artean gaztelaniaz hitz egin dugu, baina hala ere euskara ikasi nahi dut, gainera eskolan euskaraz irakasten da. Gaua da eta zaintzailea agurtzeko ordua iritsi da, zaintzaileak ez triste jartzeko esan dit baina triste jarri naiz. Denboratxo bat hitz egiten pasa ondoren joateko ordua iritsi zaio eta nik besteei goraintziak emateko esan diot.

Afaltzeko orduan purea afaldu dugu, baina oso goxoa zegoen eta gero logelara joan gara. Nik seme alabekin lo egin dut, oso logela handia dute aterpetxekoekin alderatuta behintzat. Bi ohe daude, bata litera bat da eta bestea bakarkako ohea. Ondo konpondu gara, gainera nire adin antzekokoak dira.

Gaur goizean iratzargailuaren zaratarekin esnatu naiz, baina ez naiz ohetik altxa lotsa pixka bat ematen zidalako eta nekatuta nengoelako, baina azkenean aspertu eta altxa egin naiz. Gurasoak sukaldean zeuden eta gosaria eskaini didate baina nik esan dut oraindik ez nuela goserik eta orduan jolasteko jostailu batzuk eman dizkit. Ni jolasten hasi naiz eta konturatzerako seme alabak esnatu egin dira. Gosalduta ondoren gurasoek paper batzuk sinatzera joan behar ginela esan digute, paperak familia ofizial bat garela baieztatzeko ziren eta gaur sinatu behar ziren. Hori entzunda logelara joan gara jantera. Gero autoan sartu eta han abiatu gara.

Pixka bat aspergarria izan da baina merezi izan du zeren jada nire benetako familia dira. Gero parkera joan gara, parkea oso polita da, kolore askorekin, lau kulunkekin, txirristarekin... Eta oso ondo pasa dugu.

Hurrengo egunetan ere oso ondo pasa dut: itsasertzean paseatu dugu, berriro ere parkera joan gara, familia osoarekin bazkari bat egin dugu...

Baina hala ere, gaurko onena oporretara joan behar garela esan digutenean izan da. Uste dut Lanzarotera joan behar garela, hango kanping batera eta gero mugikorra hartu eta argazki batzuk erakutsi dizkigute, bertan igerilekuak, hondartza, parke txiki bat, sarrera... agertzen ziren eta joateko izugarrizko gogoia sartu zait.

Hala ere, joan aurretik gauza asko egin behar dira adibidez maletak egin eta niri horrek luzerako emango dit, zeren eta ez dut ez bainujantzirik eta ez uretako betaurrekorik. Horregaitik bihar amarekin arropa denda batera noa falta zaidana erostera.

Gaur goizean – goiz esnatu, jantzi eta amarekin abiatu naiz falta zaidana erostera. Azkar erosi dugu erosi beharrekoa, dena oso polita zelako eta etxera itzuli gara. Esan digutenez astehelenean abiatuko gara eta bi aste pasako ditugu han, Lanzaroten. Hori entzunda, maleta eta eraman nahi ditugun jostailuak prestatzen hasi gara. Gurasoak aldiz gauza gehiago prestatu behar dituzte adibidez: sukaldatzeko behar den materiala, hondartza eta igerilekurako gauzak... Janaria han erosiko dugu, hegazkinean joateko horrenbeste gauza ezin baitira eraman.

Azkenean iritsi da astelehena, goizean goiz esnatu eta autoan sartu gara eta abiatu gara. Autoz egin beharreko bidaia ez da oso luzea izan, hegazkinekoa aldiz oso luzea izan da, baina azkenean iritsi gara. Lehenengo sarreran giltza hartu dugu, gure zenbakia 11. zen eta haruntz joan gara, maletak desegin eta parkera jolastera joan gara. Parkea oso polita zen eta oso ondo pasa dugu. Gero ama etorri da gure igerilekuko gauzekin eta aita bazkaria prestatzen ari zen bitartean ea igerilekura joan nahi genuen galdetu digu eta guk baietz erantzun diogu.

Eguna batera eta bestera pasa dugu, nire anaiak eta ahizpak lagun batzuk egin dituzte baina niregana ez da inor gerturatu. Egia esan ez dakit zergatik, baina ez diot garrantzi askorik eman. Gainera oraindik lehen eguna da lagun asko egin daitezke oraidik.

Gaur ere oso ondo pasa dut eta gauza asko egin ditugu. Bazkaldu eta gero nire anaia eta ahizpa berriak lagun batzuekin igerilekura joateko geratu dira, baina ni ez naute gonbidatu eta joaterakoan zera entzun diot galdetzen beraien lagunari nire anaiari eta ahizpari: hori zuen familiakoa al da? Zeren eta nik arreba edo ahizpa bezala edukiko banu lotsatu egingo nintzateke. Zuek ez hala? Amak hori entzunda izozki batera gonbidatu nau nolabait kontsolatzeko edo, baina ez du funtzionatu. Orain ulertzen dut zergatik nire ahizpak eta anaiak horrenbeste lagun egin dituzten eta nik ez.

Gauean ezin nuen lorik egin gaur gertatu denari bueltak ematen nenbilelako eta gauza asko etortzen zitzaizkidan burura adibidez eskolan ere berdina gertatuko ote zaidan... baina azkenean lo hartu dut.

Gaur gurasoak nirekin hitz egin dute eta esan didate ez dela berriro gertatuko, baina nik ez dut sinesten.

Nire ustez nire bizitzan oztopo asko agertuko dira Siriakoa izateagatik, desberdina izateagatik, baina denak gainditzeko prest nago eta ez dut etsiko. Azkenean, gurasoak erabaki zuten zaharren egoitzara eramatea geroz eta gaixoago zegoelako. Bertan, ondo zainduko baitzuten.